

Elkartasunezko ekintzaren alde

**EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK 7.000 TONA
JANARI BAINO GEHIAGO EMAN ZITUZTEN
2017AN PREMIA GEHIEN DUTEN FAMILIENTZAT**

- 4.755 tona baino gehiago EROSKI emanak dira, "Ez alferrik galdu" programarekin, zeinak bermatzen baitu jateko moduko janaririk ez dela botako EROSKIren dendetan, eta gizarte erakundeei emango zaiela.
- Urte horretan, Elikagai Bankuen alde egindako elkartasun kanpainaren bitartez, 2.437 tona janaririk gora biltzea lortu zen EROSKIren saltokietan

Elorrio, 2018ko urtarrilaren 18a.- [EROSKI](#) eta haren bezeroek 7.000 tona janari baino gehiago eman dituzte 2017an premia handiena duten familientzat. Kopuru horrekin, 4.341 familiak jan dezakete urte osoan. Dohaintza horretatik, 4.755 tona baino gehiago EROSKI emanak dira, "Ez alferrik galdu" programarekin, zeinak bermatzen baitu jateko moduko janaririk ez dela botako EROSKIren dendetan, eta gizarte erakundeei emango zaiela.

"EROSKIIn funtsezkotza ikusten dugu guztien artean iristea gizarte bidezkoago eta kohesionatuago bat izatera. Horregatik, konpromiso bat dugu gizartearekin, eta konpromiso horretan, premia gehien dutenen aldeko elkartasuna da ekintza garrantzitsuenetako bat. Hain zuzen, horren aldeko ardura hartzen dugu gizarte erakunde askotarikoekin izaten dugun lankidetzan. Aurrendariak izan gara Espainian gure sektorean janaririk ez alferrik galtzen gure denda sare osoan", esan du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

FESBALekin aritzen da EROSKI lankidetzan (Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioa), "Ez alferrik galdu" programan. *"Elikagaien Bakuarentzat funtsezkoa da EROSKIren moduko enpresekin jardutea, laguntza ematen baitigute Bilketa Handian eta horrelako beste kanpaina batzuetan, baita urte osoan ere "Ez alferrik galdu" dohaintza programarekin. Janaria alferrik galtzearen aurkako konpromisoa du, eta hori bi erakundeen izaeran dago",* esan du Elikagaien Bankuko Espainiako Federazioko presidentek, Nicolas Palaciosak.

Kooperatiba protokolo bat lantzen ari da emandako produktuen elikadura segurtasuna zehatz-mehatz zaintzeko. Elikagai freskoekin, esaterako, zenbait neurri hartzen ditu hotz-katea ez dadin eten, ez EROSKIren beraren barneko

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI - PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

jardunean eta ez erakunde hartzailearen esku geratzen direnean ere (bermatu egin behar dute baldintzak zorrotz zainduko dituztela bai garraioan eta bai beren biltegietan).

Programa horretan, EROSKIk baldintzarik onenetan dauden produktuak soilik eskaintzen dizkie bezeroei. Elikagai freskoren batek freskotasuna zertxobait galdu badu edo ontziren bat ez badago behar bezala (kolpetxo bat duelako, adibidez, edo bilgarria apurtu zaiolako), kendu egiten ditu saltokietatik, eta programa honetan parte hartzen duten erakundeei ematen dizkie. EROSKIk ematen dituen janari guztiak daude iraungitze dataren barnean eta kontsumitzeko egoera ezin hobean.

2.437 tona janaritik gora bildu dituzte kanpainen bitartez

"Ez alferrik galdu" programaren bitartez, 4.755 tona baino gehiago ditu kooperatibak emanak, eta, gainera, 2.437 tona bildu dira Kilo Operazioa eta Bilketa Handia kanpainetan. Bilketa Handiari dagokionez, abenduan izan zen, eta EROSKIren, Vegalsaren eta Capraboren 460 bat saltoki jardun ziren Elikagaien Bankuaren alde. *"Eskerrak eman nahi dizkiegu bezeroei, berrizkoan ere elkartasun ekimen honen alde egin dutelako, eta Elikagaien Bankuari, boluntario lanean aritu baita. Ohikoa denez, EROSKIk bat egin nahi izan du konpromiso horrekin, eta dohaintza gehigarri bat egin du kontsumitzaileek emandako kiloan guztizkoan oinarrituta"*, esan du Alejandro Martínez Berriochoak.

1996an hasi zen EROSKI Elikagaien Bankuarekin lankidetzan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak proposatuta eta kontsumitzaileek berek eskatuta behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakusteko.

Gero, EROSKIk martxan jarri zuen kontsumitze data hurbil zuten baina oraindik ziurtasun osoz jateko onak ziren elikagai ontziratuen donazioaren programa. EROSKIren programa honek eta Elikagaien Bankuak jarraitzen dute 'Ez alferrik galdu' konpromisoarekin, jateko on den elikagairik ez botatzeko bere hipermerkatu eta supermerkatu sare guztian.

Krisi ekonomikoaren lehen ondorioak hastearekin, EROSKIk eta FESBALek janari freskoetara zabaldu zuten programa hau; horretarako, beharrezkoa izan zen donazio logistika berriz definitzea, hotz kateari eusteko eta ziurtatzeko elikagaiak segurtasun osoz ailegatzeko direla hartzaileengana.

Egindako lana aitortua dio Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, Urrezko Galburuaren sariarekin; hain zuzen, hori da erakundearen saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmentzen diren erakundeei ematen diena.

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
XURDANA FERNANDEZ

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI - PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)